

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2009ko martxoa • 43. zenbakia

HEDEMEPEN DAPA
UPUDARABERERRIADA!



Zuhaitz eguna



Iñauteriak



Kuestazioa



Intxisu eta Sorginak



Santa Ageda



u r k i b i d e a

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	7
INAUTERIAK 09	17
EUSKARAREN TXOKOA	21
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	26
GU ERE KAZETARI	30
NAHASTE BORRASTE	32



UDABERRIAREKIN BATERA KIMU BERRIAK

Haurtzaro Ikastolan 3 urtetan

4. gela irekitzera goaz datorren ikasturtean

Matrikulazio kanpaina amaitu berri den honetan, emaitza ezin hobeak eskuratu ditugula esan dezakegu; Haurtzaro ikastolaren aukera egiten duten familien kopurua goruntz doa.

Aurten egin ditugun bilera informatiboetan ia 40 familiak hartu dute parte, eta bakarkako bileretara beste 20 bat familiak azaldu zuten beren interesa. Bileren ondoren, ikastolako instalazioak ikusteko aukera izan dute gurasoek, bereziki, 2 urteko haurren gelak.

Emaitzak onak dira, eta ondorioz, ez dira 3 urteko ikasle guztiak 3 gelatan sartzen. Beraz, 4. gela irekitzeko baimena eskuratzeko lanetan ari gara.

92. urteko Eskola Publikoaren legearen ondoren, ikastolekiko administrazioak ikastolekin hartutako jarreraren ondorioz, 3. lerroa galdu eta 2 lerroko ikastola izatera ia iritsi zen gure ikastola. Baina guztion lanari esker, egoera honi buelta eman eta 3. lerroa ere DBHra iritsiko da datorren urtean; eta 4. ikasturte barru DBH osora. Eta horrez gain, 4. lerroa 3 urteko ikasleekin. Gorakada handia, beraz, azkenaldian ikastolako matrikulazioan.

Horrek betiko arazoa nabarmenduko du. Tokia. Non sartu ikasle horiek guztiak? Laster beharko du eraikin berria. Azken garai honetan, hainbestetan aldarrikatutako beharra. Baina honen inguruan ere ari gara lanean eta ia ekaineko alean berri hau emateko moduan gaude.

Ongietorria eman beharrean gaude aurtengo udaberriari!



EKINTZAK - IBILALDIAK

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
HAUR HEZKUNTZA			
HH2	OTSAILAK 26	BASORA	DISFRUTATZERA
HH3	OTSAILAK 27	OIARTZUNDIK PASEATZERA	AUZOAK EZAGUTZERA
HH3	MARTXOAK 11	ELIZALDE AUZORA	MARRAZKI BAT EGITERA
HH3	MARTXOA	KARRIKARA	AUZOAK EZAGUTZERA
LEHEN HEZKUNTZA			
LH 1. MAILA	URTARRILAK 22	ANTTON KAZABONEN IPUIN KONTAKETA IKASTOLAN	IRAKUR ZALETASUNA BULTZATZEA
LH 1. MAILA	OTSAILAK 6	IKASTOLAN	ASKARI BAT ANTOLATU
LH 1. MAILA	MARTXOAK 12	JAIONE UGALDEBEREREN AURKEZPENA IKASTOLAKO ARETO NAGUSIAN	AINTZINAKO GREZIA EZAGUTU
LH 1. MAILA	OTSAILA	IKASTOLAN	AGENDA 21 MUGIKORTASUNA
LH 2. MAILA	URTARRILAK 23	TRINTXERPEKO PLANETARIUMERA	IZARRAK ETA KONSTELAZIOAK BEHATZEA
LH 2. MAILA	OTSAILAK	IKASTOLAN	AGENDA 21 MUGIKORTASUNA
LH 2. MAILA	OTSAILAK 9	"LA CASA DEL CAFÉ"-RA	PRODUKTU BATEN EKOIZPEN EZAGUTZEA
LH 2. MAILA	OTSAILAK 27	AZPEITIKO INGURUGIRO ETXERA ETA TREN MUSEORA	INGURUMENAREN ZAINKETAREN SENTSIBILIZAZIOA ETA GARRAIO MOTAK EZAGUTZEA
LH 3. MAILA	URTARRILAK 19	DBH1 KOEN ANTZERKIA	ANTZERKI EMANLDIA IKUSTERA
LH 3.-4. MAILA	OTSAILAK 4	SANTA AGEDA	USADIO ZAHARRAK JARRAITUZ SANTAGEDA KANTARI ATERA ITURRIOTZ AUZOAN ZEHAR
LH 3. MAILA	OTSAILAK 6-9	AGENDA 21	AGENDA 21KO LEHEN SAIOA
LH 3. MAILA	OTSAILAK 27	TXOTXONGILO EMANALDIA	TXINAKO GAI BUKAERAREN PROIEKTU BEZALA
LH 3. MAILA	MARTXOAK 11	LABORATEGIRA	TXANELAK PROPOSATZEN DUEN ESPERIMENTU BAT EGITERA
LH 3. MAILA	MARTXOAK 18	HAIZEAREN ORRAZERA	TXANELAK PROPOSATZEN DUEN ARTE LANA BEHATZERA
LH 3. MAILA	MARTXOAK 23, 26, 27, 30	BIDE HEZIKETA	BIDE HEZIKETA
LH 4. MAILA	OTSAILAK 19	DONOSTIARA	ZINEA EUSKARAZ
LH 4. MAILA	MARTXOA	UDAL LIBURUTEGIRA	LIBURUTEGIA EZAGUTZERA
LH 5. MAILA	OTSAILA (2 SAIO)	HERRIAN ZEHAR	AGENDA 21
LH 5. MAILA	OTSAILAK 19	DONOSTIARA	ZINEA EUSKARAZ
LH 5. MAILA	MARTXOA (3 SAIO)	GELAN	BIDE HEZIKETA LANTZERA
LH 5. MAILA	MARTXOA (4 SAIO)	IKASTOLAN	JOLASEAN ERE EUSKARAZ
LH 5. MAILA	MARTXOAK 27	KUTXAGUNERA	ENERGIA ETA ARGIAK LANKETA
LH 5.- 6. MAILA	OTSAILAK 4	SANTA AGEDA	USADIO ZAHARRAK JARRAITUZ SANTAGEDA KANTARI ATERA ELIZALDE AUZOAN ZEHAR
LH 6. MAILA	URTARRILAK 14	ZINEMA	HARREMAN DESBERDINAK EZAGUTZERA ETA DISFRUTATZERA
LH 6. MAILA	OTSAILAK 2TIK 6RA	AGENDA 21	MUGIKORTASUNA AZTERTU ETA EBALUATU
LH 6. MAILA	OTSAILAK 6	IKASTOLAKO JANTOKIAN ODOL EMAILEEN AURKEZPENA	• ZIRKULAZIO SISTEMA GEHIAGO EZAGUTZERA • ODOL EMAILEEN LANA EZAGUTZERA
LH 6. MAILA	OTSAILAK 10	XIBAKO TOPAKETAK	BOTE LUZEA EZAGUTU ETA PRAKTIKATU
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA			
DBH 1. MAILA	MARTXOAK 9	TABAKOARI AURRE-HARTZEKO TAILERRA	• IKASLEEK TABAKOARI BURUZ DUTEN INFORMAZIOA GEHITU ETA HOBETZERA • TABAKOAK ERRETZEAK BERAREKIN DITUEN ONDORIO TXARRAK ETA ARRISKUAK EZAGUTU ETA AZTERTZERA
DBH 1.-2.-3.-4. MAILA	OTSAILAK 4	SANTA AGEDA	USADIO ZAHARRAK JARRAITUZ SANTAGEDA KANTARI ATERA ELIZALDE AUZOAN ZEHAR
DBH 2-3	OTSAILAK 25-26-27	SEXUALITATEARI BURUZKO SAIOAK IKASTOLAN	IKASLEEK SEXUALITATEARI BURUZ DUTEN INFORMAZIOA GEHITU ETA HOBETZERA
DBH 2. MAILA	MARTXOAK 4	IPARRALDEKO BERTSOLARIEN BISITA IKASTOLAN	BERTSOAZ GOZATZERA
DBH 4. MAILA	ABENDUAK 12	IRUNGO AMAIA ANTZOKIA	"THE IS ENGLAND" FILMA IKUSTERA
DBH 4. MAILA	OTSAILAK 25	IKASTOLAN	AMAIA LAKA, OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAKO ORIENTATZAILEAREKIN HITZ EGITERA



KONPOSTA IKASTOLAN

Etxean bezala ikastolan ere zabor asko sortzen dugu egunero. Papera, plastikozko eta metalezko ontziak eta beira bereizi egiten dira eta birziklatzera eramaten dira. Zer egin dezakegu gainontzeko hondakinekin? Bota? Gero eta larriagoa da zaborra nahastuta botatzeagatik sortu dugun arazoa. Horregatik guztion artean irtenbideak bilatu behar dizkiogu arazo honi.

Zabor gutxiago sortzen badugu, hobe izango da, noski, baina sortzen dugunarekin zer egin? Berrir erabili ezin badugu, birziklatu daitekeena birziklatu. Izan ere, ia-ia dena birzikla daiteke: papera, kartoiak, beira, plastikozko eta metalezko ontziak, organikoa... Bai, organikoa; zaborrontzira botatzen dugun janari hondar hori guztia. Hau birzikla dezakegu? Jakina! Ongarri ederra egin dezakegu honekin. Ikastolan jadanik ongarrria egiten ari gara; konposta egiten ari gara.

Zer da konposta?

Hondakin organikoen transformazioz sortzen den ongarrria da. Gordinik edo sukaldatutako janaria, landare adarrak, hostoak, paperezko ezpainzapiak... hauek denak pilatuta uzten baditugu usteldu egingo zaizkigu. Baina noizean behin mugituz oxigenatzen badugu eta hezetasuna kontrolatuz gero konposta bihurtzeko prozesua egiten ariko gara. Honetarako lan egiten duten bizidunentzako, bakterientzako, oso garrantzitsua da oxigenoa.

Ikastolan ikasi ditugun bizidun miresgarri hauek oxigenoa behar dute janaria transformatzeko. Ikastolako jantoki alboan dagoen makinaren barruan hau gertatzen ari da urritik hona. Sukaldeko langileek jantokian egunero sobratzen den janaria makina honetan sartu ondoren makina honek bere lana egiten du: txikitu eta nahastu. Gurean esperientzia berria denez prozesua ikasten ari gara eta horrela



hobekuntzak egiten hasiak gara jadanik. Izan ere, orain arte tximiniatik irten den airea garbitzeko filtro bat jarriko zaio albotik pasatzen diren ikasleak bazkaltzera gus-tura sar daitezen. Gainerakoan, jadanik konposta prest dugu; ikasleekin gaia lantzeko edota Oiartzungo larreak zein lorategiak ongarrizteko.



Konpostarekin zer egin?

Baratzearan aritu zaretenok jakingo duzue bertako produktu goxoak ez direla bakarrik jaiotzen, ez noski! Lurra landu, ureztatu, belar txarrak kendu, ongarritu... Etxean sortzen dugun hondakin organikoekin konposta egin ahal izanez gero berrir lurrera itzul genezake bertatik


sortu den hori. Landareari elikagaiak emateaz gain, lurreko bizidunentzako oso osasungarria da, inongo kimikorik erabiltzeko beharrik gabe. Lorezaintzan ere oso erabiliak dira ongarrriak, landareentzako lurrarekin batera. Oiartzungo lorategiek eskertuko dute ongarrri naturala, krisi garaian ongarrria doan!

Irtenbideak badaude

Imajinatu sortzen dugun hondakin guztiak birziklatu ahal bagenitu... Munduko hamaika lekutan konpromiso serioa hartu da ingurumenaren alde hondakinen arazoari irtenbidea emanez. Legeak zorrotz jarri dira material guztiak birziklagarriak izateko, plastikozko poltsak debekatzeko, konposta egitera behartzeko... Imajinatu sortzen ditugun hondakinak berrir erabili ahal bagenitu. Norberaren etxetik hasita gutariko bakoitzak pixkanaka aurrera pausoak ematen baditugu arazo honi irtenbidea eman ahal diogu. Ikastolan udalaren laguntzarekin pauso bat eman dugu aurrera, ikusi baitugu heziketak garrantzi handia duela gai honetan. Goazen, bada, sortzen ditugun hondakinen erantzule izanik ingurumenaren alde lan egitera; gure ondorengoek eskertuko digute.



IKASTOLAKO LANAK **GASTEIZEN IKUSGAI**



Martxoaren 10etik 12ra izan dira Gasteizen, Ikastolen Elkarteak antolaturiko XVI. Jardunaldi pedagogikoak. Bertan aztertu duten gai nagusia **konpetentzia edo gaitasunetan oinarritutako hezkuntza** izan da. Moda-modan dagoen kontzeptua, gaitasunak. Martxoaren 10etik 12ra izan dira jardunaldi hauek, eta hausnartzea eta ekitea izan dute ardatz eta aztergai. **Hausnartu eta ekin:** hezkuntzaren zutabe nagusiak, konpetentzien oinarri.

Informazioa hartzea eta interpretatzea, ulermenean oinarrituta pentsatzea, informazioa ebaluatzea, ideia berriak sortzea, erabakiak hartzea, arazoak konpontzea, baliabide kognitiboak erabiltzea... Eta horiek guztiak gainerako giza konpetentziekin batera uztartzea omen da hausnartzea eta ekitea. Modu horretan norbera izaten ikasiko du ikasleak, elkarrekin bizitzen, komunikatzen eta arazoei aurre eginez irtenbideak aurkitzen. Ikus daitekeenez, egungo heziketak helburuak eta edukiak aldatzen doaz, "gai diren" ikasleak lortzeko bidean jartzea litzateke gaurko joera eta helburu nagusia.

Maila horretan, Haurtzaro ikastolak urteak daramatza bide horretatik ahalegintetan. Horregatik, Gasteizko jardunaldi hauetan lehen mailako presentzia izan du Diartzungo ikastolak, eta bere esperientziak erakusteko aukera eskaini diote.

Haurtzarok bi panel zintzilikatu ditu **hausnartu eta ekin** izeneko jardunaldi horietan. Lehenengoa, plastika alderdiari buruzkoa, ikastolako Lehen Hezkuntzan aspalditik martxan duten Txanela proiektuarekin loturikoa. Eta bigarrena, kulturartekotasunaren panela, DBHko Ostadar proiektuarekin lotua.

Horiez gain, ikastolako bi film labur ere aurkeztu zituzten jardunaldi horietan. Lehenengoa, *ZORIONAK!* izeneko, kulturartekotasunari buruzkoa, eta bere garaian Jaur-laritzaren saria jaso zuena. Eta bigarrena, zientzia eta teknologia gaien ingurukoa.

Beraz, gaitasunetan oinarritutako hezkuntzan ere, aintzindari Haurtzaro ikastolako hezkuntza proiektua. Bejondaizuela!





OSTIRALAK MUSIKAZ BLAI!

Ikasturte honetan zehar, Arrieta Aldeko ertainen taldeek izaera berezia eman nahi izan diogu ostiralari. Haurrari ulertaraziz egun ezberdina dela, asteko azken eguna!

Honi garrantzia emateko, zenbait baliabide erabiltzen hasi ginen: aurpegiak margotu, mozorrotu, suziria bota, musika jarri eta abar. Nolako giroa sortzen den ostiraletan!

Baina goiz batean entzundako soinua ezberdina zen. Berezia! Zer ote da? Musika tresna ezberdinak ekarri genituen gure artera.

Zeinek esango luke musika instrumentu hauek hain gertu eta zuzenean bizitzeak horrelako arrakasta eta giro polita ekarriko zuenik, ertainetako 4 taldeak elkartuz.

Ezin aipatu gabe utzi musikaren mundu berri eta magiko honetan deskubritutako zenbait alderdi:

- Gertuko eta aurrez aurreko musika
- Arreta eta isiltasuna
- Soinu desberdinak
- Bolumena (ozena eta apal)
- Erritmo ezberdinak (azkar eta poliki: hauek animaliekin erlazionatuz)
- Instrumentuekiko errespetua
- Gorputz adierazpena (bakarka, taldeka)
- Abestiak
- Imitazioa

Hau guztia kontuan hartuta, haurrak musika tresnekin familiarizatzea lortu dugula uste dugu eta aldi berean gainontzeko taldeetako haurrekin batera modu lasai eta goxo batean egotea.

Lanketa honen ondorio garrantzitsutzat jotzen dugu, bai Olentzero etorri zen egunean eta baita inauterietan ere izandako giro polita, lasaia eta alaia. Talde guztiak elkartu eta, kanpoko jendea etorri arren, haurrek primeran erantzun baitzuten.

Aipamen berezi moduan ezin utzi azken egun hauetako batean gertatutakoa. Irakasleak "Mikel Urdangarin" en CDa jarri eta zenbait haur biolina jotzeko keina egiten hasi ziren, entzundako soinua ederki identifikatu ondoren. Harrigarria!

Maru Rivas
Ibintza Iragorri
Mari Jose Zumeta
Maitane Crespo

Arrieta Aldeko 1-2 urteko taldeak





KAIXO DENO!!!!

AURTENGO NEGUAN ELUR PILA EGIN
DU ETA HOTZ HANDIA IZAN DUGU,
HORREGATIK HIRU URTEKOAK EZ
GARA ASKOTAN ATERA KANPORA.
GEHIENETAN GELAN EGON GARA
GOXO-GOXO ETA BERO-BERO. HALA
ERE, EDERKI ASKO PASA DUGU.

JAKIN NAHI AL DUZUE ZERTAN IBILI
GAREN????

HH1





LAU URTEREKIN LIBURUTEGIAN

NAHIZ BATZUEK PENTSATU LAU URTEREKIN EZ DAKIGULA IRAKURTZEN, GU HILERO-HILERO JOATEN GARA LIBURUTEGIRA ETA HANGO IPUINEKIN OSO ONDO PASATZEN DUGU. AZKENEKOZ JOAN GINENEAN ANAK (ARDURADUNAK) ESAN ZIGUN ZENBAIT HANDI BAINO HOBETO PORTATU GINELA; ISILIK, LASAI ETA ERABILITAKO LIBURUAK BERE LEKUAN UTZIZ.

A! BUKATZEKO, ANDEREÑOAK IPUIN BAT KONTATU ZIGUN. BERRIRO JOATEKO IRRIKITZEN GAUDE.



HH2

Gure herriko inauterietako pertsonaiak intxixuak eta sorginak diren bezala

GURE HERRIKO INAUTERIETAKO PERTSONAIAK INTXIXUAK ETA SORGINAK DIREN BEZALA, AURTEN EUSKAL HERRIKO HAINBAT HERRITAKO PERTSONAIK EZAGUTU DITUGU. HAUEN ARTEAN MARKITOS, ZIRIPOT, MIEL ONTXIN, HARTZA, JOALDUNAK, ZALDIKO...

HAUETAKO BATZUEN IRUDI ERRALDOIAK EGIN GENITUEN PASILOAK APAINTZEKO. BEGIRA ZEIN POLITAK ETA IKUSGARRIAK GERATU ZIREN. GURE INGURUKO TXIKIAK EGUNERO EZ ZIREN HAUEN AURRETIK PASATZEN BEGIRA GERATU GABE, IRRIBARREA AHOAN ZUTELA.

HH3





Inauteriak pasa ondoren, denboraren makinan sartu eta Antzinako Greziara abiatu gara. Gauza asko ikasi ditugu: non bizi ziren, nola antolatzen zuten beren bizitza, haurrak ere nola bizi ziren, zer egiten zuten aisialdian... Greziako kondairak asko gustatu zaizkigu! Baina gehien-gehien plastikan egin ditugun lanak: Partenoia eta Mironen diskoboloa.

Bai politak geratu dira gure maketak!!!

LH 1. maila



2. mailakoek bidaiak prestatzen

ZER BIDAIA EGITEKO ASMOA AGERTU DUGUN?

1 Pentsatu genuen espaziora alde egitea eta bidaia prestatzeko izarrak ezagutzera joan ginen Planetariumera.

2 Oso zaila zela espaziora joatea eta espazioa bertara ekarri genuen.

3 Azkenik pentsatu genuen trenak aukera polita zela gure herria eta herrialdea ezagutzeko eta Azpeitira joan ginen Tren museoan zeuden makinak ikustera.

Ikusi eta ikasi ondoren oporretan erabakiko dugu bakoi-tza nola eta nora joan.

LH 2. Maila





Kaixo, lagunok!

Bukatu berri dugu txinaren gaineko gaia "xangai xian xi... txinatarrekin ederki" gustura aritu gara lan eta lan. Unitatea ondo amaitzeko otsailaren 27an txotxongilo emanaldi bat izan genuen azken proiektu bezala.

Talde bakoitzak bere gidoitxoa, bere txotxongiloak antolatu zituen. Guztira 11 taldek parte hartu genuen, barre, harridura... emozio ugari bizitzeko aukera izan genuen.

Txinatarrek dioten bezala txai txie!

LH 3. maila

Lan asko egiten dugu 4. mailan baina ongi pasatzeko eta dibertitzeko aukerarik ez dugu galtzen. Dantza, antzerkia... asko gustatzen zaigu festa eta parrandan aritzea.

Begira nola ibiltzen garen!!!

LH 4. maila





“EZ DAUKANAK ONGI OHI DAKI EDUKITZEA ZEIN DEN ONA”



Hau izan da Txanelan landu dugun 3. unitatearen izenburua. Gauza asko ikasi ditugu gai honetan.

Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dauden ezberdintasunak zergatik gertatzen diren.

Munduko populazioa nola dagoen banatuta. Txinak eta Euskal Herriak biztanle dentsitate oso antzekoa dute!

Herrialde askotako biztanleen bizi itzaropenak konparatu ditugu: Japoniako edo Euskal Herriko biztanleek batzaz beste 75 urtetan bizi daitezke, baina Afrikako zenbait lurraldetan ez dira 30 urtetara iristen...

Multinazionalak zer diren eta nola funtzionatzen duten ulertzen saiatu gara eta alternatiba bezala bidezko merkataritzak ekar ditzakeen onurak ere ezagutu ditugu.

Begira munduan dagoen aberastasunaren banaketari buruz egin ditugun bertsoak



a)

Hezkuntza arloan ondo gabiltza
ditugu aski ikastegi
Janari ugari ere badugu
arraindegi ta okindegi
Industria, ospitale denetik dago
baita ere kiroldegi
Iparran dago diru gehiegi
ta Hegoan gutxiegi

Baita ere, ikasi dugu giza espezie bakarra izan arren, hainbat kultura daudela munduan, eta kulturaztasuna munduaren altxorra dela. Horregatik, gure Txoko Txuria munduko hainbat herrialdetako gauzekin hornitu genuen.

b)

Gure munduan zergatik hiltzen
dira hainbeste haur txiki
Hegoaldeko txiki gehienak
bizi dira oso gaizki
Iparraldean guk badaukagu
diru eta janari aski
Diru guztia banatuz gero
bizi gintezke ederki



c)

Kontatu nahi genuke
ikasitakua
gure gela baitago
oso kezkatua
Nahiz ta hemen badago
jateko nahikua
mundua oso gaizki
dago banatua



LH 5. maila



URTEBETETZE OSPAKIZUNAK

LH 6. mailakoen zenbait urtebetetze antzerkien bitartez ospatzen ditugu. Antolaketak buru-hauste batzuk sortu arren, emanaldi zoragarriak egiten ditugu. Oso ongi pasatzen dugu!



LH 6. maila



NOLA GALARAZI TELEBISTAK HAURRENGAN DUEN ERAGINA?

Gaur egungo gizartean telebista heziketaren zatia da, izan ere, guraso askoren ustez hura da umezainik onena; baina sarritan guraso horiek ez dute ongi pentsatzen zein umezain arriskutsuren eskuetan jartzen ari diren beren seme-alabak. Jakina baita telebistak haurrengan eragiten duen bortizkeria. Arazoa ezaguna egiten zaie askori, eta sarritan galdetzen diete beren buruari ea zer egin dezaketen hori konpontzeko.

Haurren bortizkeria ez da harritzeko kontua, kontuan izanik telebistan emititzen den etengabeko bortizkeria. Izan ere, Espainiako teleikusle eta irratizaleen elkarteak (ATR) dioenez, astean kate guztiak metatuta 870 borroka, 670 hilketa, 420 tiroketa, 30 bahiketa, 30 tortura eszena, 13 hilketa saio, 8 suizidio eta 25 bortxaketa agertu ziren telebistan 1998an. Gainera, Estatu Batuetan eginiko ikerketa batek dioenez, 10 urteren buruan haur batek 10.000 hilketa, 7.000 tiroketa eta 25.000 bala zauritu ikusiko ditu telebistan.

Era berean, sarritan gurasoek ez dute kontrolatzen beren seme-alabek telebistan ikusten dutena eta horrek arazo larriak ekar ditzake. Horren adibidea da Estatu Batuetako 6 urteko mutiko batek egin zuena: bere osabaren pistola hartu eta ikastolara joan zen, han zegoela eta andereñoa momentu batez joana zela aprobetxatuz, pistola atera eta ikastolan narda gehien sorrarazten zion neska hil zuen. Bere familiak zioenez, eguna telebistaren aurrean ematen omen zuen beti, milaka tiroketa ikusiz. Hori aski ez dela, Mexikon 9 urteko haur batek labankada bat eman zion 7 urteko beste bati, Chucky, panpin gaiztoa filma telebistan ikusi ondoren. Beste adibide bat: ongizate estatuaren eredia den Suedian egin den ikerketa baten arabera, 5 haurretatik 4k helduak tiroz hiltzen direla uste dute. Esaera zaharrak dioten bezala, "umearen zentzuna, etxean entzuna" izaten omen da sarri.

Horrela, bada, telebistak haurrengan duen eragina arazo larria da gaur egungo gizartean. Horri aurre egiteko hainbat bide egon daitezke, gurasoen kontrola dela, edo telebistakoen aldetik akordioaren bat dela.

Lehenik eta behin, gurasoek beren seme-alabek telebista ikusten ematen duten ordutegia kontrolatu beharko lukete eta baita bertan ikusten dutena ere. Izan ere, haurren garuna belaki baten modukoa da;



hau da, haurrak telebistan ikusten duen guztia xurgatzen du belaki bat bailitzan, eta hor ikusten duena eredu zuzena dela iruditzen zaio. Era berean, egunero, gure etxean, inolaz ere nahiko ez genukeen jendaila telebistaren leihotik sartzen da, gure ondorengoak izango direnen garunak irudi bortitzez zipritinduz.

Telebistakoen aldetik, biolentzia eszenak dituzten telesailak... hitzartutako ordu batetik aurrera bakarrik emititzea lortu beharko litzateke, horrela haurrek horiek ikustea zailago suerta dadin. Baina beren haurrak ere izan baitaitezke hori ikusi eta imitatzen saiatzen direnak, eta inork ez luke nahiko bere seme-alabaren irudi izatea bortizkeria.

Telebista gehiegi ikustearen ondorioak diruditen baina kaltegarriagoak dira, inkomunikazioa sortzetik hasi eta familian haustura eragiteraino. Gainera, umeen eguneroko bizimodua arrunta izaten da, zipritin gutxikoa. Hainbeste irudi gordinen aurrean, bihozgabe bihurtzeko arrisku bizia dago, zerbait normala bailitzan. Hori gutxi balitz, umeek ez dute heriotzaren kontzeptua ongi ulertzen, ez dute erremediorik gabeko ekintzat hartzen, marrazki bizi-dunetan hiltzen direnak aise berpizten dira eta.

Laburbiltzeko, esan genezake telebistak haurrengan sortzen duen bortizkeria arazo larria dela, eta hori konpontzeko gurasoen kontrolaz gain, telebista kateen aldetik bortizkeria eszenen emisio ordutegia akordatu beharko litzatekeela. Izan ere, haurren garuna belaki baten modukoa da eta edonoren seme-alaba izan daiteke telebistaren eredia jarraitzen saiatuko dena.

DBH 4Ako Lierni Tello



INTERNET BIDEKO ENGAINUEI STOP!

Gaur egun internet bidezko iruzurrek sekula baino gehiago inguratzen gaituzte eta ohartu gabe gutako bakoitza gezur horien besoetara goaz zuzen-zuzenean. Baina ez al digute behin eta berriz adierazten zeinen arriskutsua den gai hau? Ez al digute mila bider ohartarazten egunetik egunera gero eta arazo honen biktima gehiago daudela? Beraz, zein da arazoa? Ez al da izango gu garela arazoa eta gu garela arazoaz jabetu nahi ez dugunak?

Batetik, korreoaren bitarteko amarruak daude. Hauek normalean zenbait enpresak bidaltzen dituzte, dirua irabazteko. Askotan igorlearengan gupida sorrarazten dute, hunkitu egiten gaituzte eta horrela "behartu" egiten gaituzte mezu hauek elkarri bidaltze-ra. Beste batzuek nortasun faltsua erabiltzen dute (normalean bankuen izenak erabiltzen dituzte: Kutxa, Banesto...). Eskutitz moduko mezuak bidaltzen dituzte, eta askotan amarruaz jabetu gabe gure kontu korronteko zenbakia ematen dugu. Modu askotara engainatzen gaituzte eta gu edonola beren atzamarretara erortzen gara.



Bestetik, badira jendea ezagutzeko eta haiekin hitz egiteko aukerak zabaltzen dizkiguten zenbait orri. Bertan gure izena eta beste zenbait datu ematen ditugu eta guk bestearenak jasotzen ditugu, baina bai al dakigu nor den ordenagailuaren bestaldean dagoena? Ia beti sinesten dugu esaten digutena, baina ez da batere fidagarria. Nork esango luke ezagutu berri dugun hori hiltzaile bat, bortxatzaile bat, edo eta besterik gabe aspertuta dagoen eta dibertitzeko gogoia duen pertsona bat dela? Sekula ez dugu horrelakorik pentsatzen. Gertakari ugari entzuten ditugu egunero telebistako albistegietan, egunkarrietan edo beste hainbat lekutan, baina hori besteei bakarrik gertatzen zaiela pentsatzeko joera izugarria daukagu, guri ez zaigula sekula horrelakorik gertatuko. Nork ziurtatzen digu, ordea, horrelakorik?

Badira baita ere beste zenbait amarru. Askotan irakurri ohi ditugu "zorionak 1000. bisitaria zara. Sartu hemen eta irabazi 3.000€" eta antzeko beste



zenbait enuntziatu. Baina ez al da zertxobait sinesgaitza? Gainera, hori horrela balitz, oso zorte handia dugun seinale, izan ere zergatik nahiko liguke ezezagun batek hainbesteko dirutza oparitu? Ba horrelako kasu asko ere gertatzen dira eta gutako askok amua irensten dugu.

Duela urte bat gutxi gorabehera, informatikako zenbait adituk ikerketa bat egin zuten gai honi buruz eta bertako emaitzek diotenez, 2006tik 2007ra kasu hauek %15 igo ziren. Emaitza hori dela eta, hitzaldiak ematea egokia litzatekeela pentsatu zuten, eta proiektua aurrera atera zuten, baina dirudienek jendea ez da ohartzen zer nolako garrantzia duen gai honek, izan ere jende-desagerpenak, emakume bortxatuak, diru lapurretak... igotzen doaz interneten erabilera desegokiagatik.

Adibidez, duela hiru aste 17 urteko gazte bat desagertu zen Sevillan, eta kasu hori aztertu ondoren pentsatu dute interneten ezagututako norbait dagoela horren guztiaren atzean. Pentsatzen dut gutako inork ez duela nahi horrelako egoerarik bizi, beraz saia gaitzen horrelako gertaerak saihesten.

Arazo hau pixkanaka guregandik urrundu dadin, gai honi buruzko hitzaldiak ugaritzea komenigarria dela iruditzen zait, eta aldi berean hitzaldi hauetan adibide gehiago eskaintzea (zenbait gertaera komentatzea, ikerketetan lortutako emaitzak erakustea...). Ea horrela jabetzen garen zein den gaur egun bizi dugun egoera eta nolako arriskuak bizi ditugun eguneroko bizitzan.

DBH 4Bko Garoa Arbelaitz

inauteri


doinua: inauteri! inauteri!

MAILA IKUSGARRIA
AURTENGO HONETAN.
IHIGO, AURKEZLEAK...
ESKERRAK, BENETAN!
KOLOREAK DANTZARI
DANTZA KOLORETAN
IKUSI BAITITUGU
INAUTERIETAN

ARRAIOA! ARRAIOA!
A ZER NOLAKO SAIOA! (Bis)



inauteri



mozorro bat



Bi aur pegi





JOLASTU EUSKARAZ, EUSKARAREKIN JOLASTU

Ikastolan, bai gelan, bai gelatik kanpo: EUSKARAZ BIZI! Hori izan da gure helburua martxoaren 12an hasi eta bukatu berri dugun bigarren kanpaina honetan. Horregatik, jolas edota kiroletan egiten den euskara hobetzeko, jolas-garaietan denetik izan dugu: betiko jolasak, pilota-partiduak, lehiaketak... Ikasleak animatuz batzuetan, lehiatuz bestetan, baina beti ere kanpaina honetako leinari jarraituz, gustura aritu dira.



Animo! ez etsi!



Jarraitu! Horrela segi!



Eman gogor!



Zein baino zein!



Eutsi-eutsi gogor, globo honek gurekin joan behar din eta!!



Aupa!



Eutsi!



Euskara bolo bolo dabil



Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia, KORRIKA, Oñartzundik pasatu da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzeko asmoz, euskaraz bizi nahi dugun guztion babesa jaso du. Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek ongi etorri alaia egin diogu.





Altziko Joxe

“Kuestazioak ez dira askorik aldatu”

Joxek azaldu digunez, lehen inauterietan ez zen orain bezalako jaialdirik ospatzen Oiartzungo plazan. Guri arrotza iruditu arren, ez ziren intxitxuak eta sorginak hurbiltzen eta “mozorrotzea pentsaezina zen”.

Haren gazte garaian, kuestazioa eginez ospatzen ziren festa hauek. Kuestazioa koadrilaka egiten zuten. Koadrila bakoitza zortzi gazte osatzen zuten gutxi gorabehera: bi kidek trikitixa jotzen zuten eta pare bat neska-mutilek dantzatu egiten zuten. Horietaz gain, zestoa, bandeja eta burrunzia eskuan hartuta, eskean ibiltzen ziren bi lagun.

Joxeren hitzetan, musikarien artean nabaritzen da aldaketarik handiena, izan ere, lehen trikitilariak ez zuten beste instrumentuen laguntzarik; gaur egun, ordea, trikitixaren doinua pandero edota kastanolez laguntzen da eta “askoz ere atseginagoa da entzuten duenarentzat”.

Inauteriak aldatu direla agerian utzi digu Joxek. Hala ere, kuestazioak ez dira askorik aldatu eta bere horretan mantentzea oso garrantzitsua dela azpimarratu digu.



Tolareko Maria Luisa

“Inauteriak: juerga hutsa!”

Maria Luisak 17 urte inguru zituenean, inauteriak juerga hutsa zirela dio. Kontatu digunez, garai haietan koadrilan biltzen ziren zazpi lagun inguru: lau dantzari, trikitilaria, bandeja pasatzen zuena eta saskia pasatzen zuena. Eguna dantzan igarotzen zuten Oiartzungo auzoetan barrena, eta gero bildutakoarekin bazkaltzera joaten ziren. Zenbaitetan ez zen nahikoa diru biltzen eta orduan mutilak bakarrik joaten ziren bazkaltzera. Baina, hala ere, ederki pasatzen zuten!

Garai haietan neskek poxpolin arropa janzten zuten, izan ere, apaizek ez zuten uzten ez aurpegia, ez eskuak tapatzen. Esan digunez, hori Oiartzunen baino ez zen gertatzen; Erreterian, Goizuetan, Tolosan eta inguruko herrietan “lasai arrai mozorrotzen ziren”.

Arin-arina eta fandangoa dantzatzen zituzten batez ere. Baltsa ere gustura aski dantzatuko zuketela aitortu digu Maria Luisak, baina ezin zen. Horregatik, behin lagun batekin Goizuetara joan zen ezkutuan. Oinez joan ziren bertara eta baltsa dantzatzeko aukera izan zuten. Arrimu-arrimuan dantzan aritu ziren arren, “zezen bat tartetik pasa zitekeen”.

Horrela gure ohiturak, lehengoak eta gaur egungoak, dantzan eta festa giroan oinarrituak daudela argi utzi digu Maria Luisak, nahiz eta zenbait gauza aldatu diren.





Kuadrillategitik

PATATA TORTILLA EUSKALDUNA DA !!

Iepa, gaztiak!

Oaingo hiruhillabetine, aurrekun bezela, ekintza asko in ttugu. Adibidez, txuri-urdiñea jun giñen patinatzea, ispi-lluan marrazkiya in genun, masaje tallerra... iñauteritane elkartu giñen moxorrotuk merienda itteko... Ta azke-nekua, ta polittena, dudik gabe, eskiatzea jutia izan tzen, oso ongi pasa genun. (Nahiz ta batzuk bueltakun tomatik maten genun).

Espero dugu datorren hiruhillabetine hain ongi pastia, launakin holako parrak botzen. Aiooooooooo!!

Kuadrillategiko hasi berriyak





GAZTE FORUTIK GAUZA PARE BAT SAN BER TTUGU

Kaixo gaztiak: gazte forutik gauza pare bat san ber ttugu.

Batetik **eskerrikasko** jostaillu bilketan parte hartu zenu-tenai ta baita jostailluak eman zenittuztenai. 200 euro atea genittun. Etiopiako Bushulo herriko haurrak esker-tuko dute denak in dugun lana ta esfortzu txikiya, ez bai-tut uste asko kosta zaigunik. Iruitzen nau konten ta pozik eon ber dugula indako lanakin, solidaritatia gauza HAUN-DIYA da.

Bestetik san gazte forun lanin jarraitzen dugula, gabone-tatik honea play station txapelketa in dugu, eskiatzea jun ga ta martxuan iruñako karting era guz.

Apirilleko re ai ga buruai bueltak ematen, zinia, tallerren bat, ikastaroren bat... ta ez aztu aste buru pasa, arka-txoneko aquaparka oik fijuk ttugula, urtero iten ttugunak.

Azkeneko beti bezela gaztaii billeretan hartzeko gonbida-pena, asteazkenero apirilla arte, 15:10ean Elizalde herri eskola.

Tortzizte zuentzako da ta!!!!!!!!!!!!





URTARRILAK 31 (Larunbata)

Elurretara irteera: SOMPORT

Azkenean elurra iritsi eta eskiatzera joateko prestatu ginen. Aurtengoan ere, azken urteetan gisa, egun berean itzuli ginen etxera.

Hasieran urtarrilaren 24an ateratzeko asmoa genuen, baina eguraldi txarra zela medio, astebete atzeratu zen. Horrela, urtarrilaren 31n, larunbata, goizeko 6etan ikastolako aparkalekuan elkartu ginen. Autobusa hartu eta Liedenaraino joan ginen lehenik. Hemen geldiunetxo bat egin eta bigarren saioan SOMPORTera iritsi ginen.

SOMPORTen materiala alokatu eta eskiatzeko prestatu ginen, monitoreek aginduta taldetan egokituta gero. Goiza eskiatzen pasatu genuen. Eguerdian atsedena hartuz, bokata jateko gelditu ginen. Arratsaldean berriz, eskiatzen jarraitu genuen, pistak itxi arte. Gero, berriro autobusa hartuta bueltan etxera itzuli. Bueltakoan ere, Liedenan beste paradatxo bat egin genuen. Gutxi gorabera 9:30ak aldera ikastolara iritsi ginen.



Santa Ageda bezperan eskean Haurtzaro ikastolako ikasleak

Euskal Herriko txoko anitzetan haur, gazte eta heldu ugari, baserri baserri edo kaleetan eskean izan ziren, usadioari eutsiz, Santa Ageda bezperan: dirua batzuetan, jateko eta edatekoa bestetan, baina denak Santa Ageda bezperako legea betetzen.

“Zorion etxe honetako denoi, oles egitera gatoz. Aterik ate ohitura zaharra aurten berritzeko asmoz”. Hori izan zen Haurtzaro ikastolako ikasleek abestu zuten lehen bertsoa. Izan ere Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak atera ziren baserri baserri eta kalez kale santa eskean aritzeko.

Aurretik betiko bertsoak errepasatu zituzten, eta egun seinalatuan baserri eta kaletar eskuzabalei eskaini zizkieten. Urtero ibili ohi dira Haurtzaro Ikastolako ikasleak makila eskuan dutela Santa Agedari kantuka. Elizalde, Iturriotz eta Altzibar auzoetan barrena ibili ziren. Trikitilari eta pandero-joleen laguntza ere izan zuten, eta gogotsu astindu zuten trikitixa.





BERDE-BERDE PROIEKTUAN SARITUAK

Jakingo duzuen bezala, berde-berdearen lehenengo lehiaketa amaitu da, eta dagoeneko, sarien irabazleen zerrenda eza-guna da. Sari banaketan gauza bitxi bat gertatu da, izan ere parte hartu duen jende mordo-aren artean saridun suertatu diren hiru neska ikastola berekoak dira, are gehiago, horietako bi ahizpak dira.

Hautzaro ikastolakoak dira gure hiru protagonistak, Olaia, Iraitz eta Garoa, eta kointzidentzia aprobetxatuz, bertan izan gara sariak eskura banatzeko, eta berekin hizketalditxo labur bat izateko aukera izan dugu.

Lehiaketaren berri irakasleak eman ziela kontatu digute, Olaiaren gelakoek berde-berdea proiektuan parte hartzen dute eta denen artean lehiaketan parte hartzea erabaki zuten.

Iraitz eta Garoa hirugarren mailan daude, horregatik bisitari bezala parte hartu dute. Irakasleek saritu nahi izan dute beren partaidetza eta detailetxo bat izan dute beraiekin. Hala ere, esan digute bidali zuten lehenengo itsasontzia irakasleak esan zielako bidali zutela, baina gero, puntuak hartu lehiaketari, eta itsasontziak bidaltzen jarraitu zutela beren kabuz.

Lehiaketan parte hartu aurretik Google Earth ezagutzen zuten, baina ez zuten sekula erabili. Teknologia berriak horrelako lehiaketetan erabiltzeari zer deritzoten galdetu diegu, eta interesgarria iruditzen zaiela erantzun digute. Gerora probetxugarria izan daitekeela berentzat aplikazio hauek ezagutu eta erabiltzen ikastea. Teknologia berrien harira, GPSaz ere hitz egin dugu, aparatua ezagutzeaz gain, turismoa egiteko erabili izan dutela aipatu digute.

Berde-berdea proiektuari buruz zer pentsatzen duten ere jakin nahi dugu. Ingurumenari buruzko gai batzuk interesatzen zaizkiela esan digute eta ondo iruditzen zaiela ikastolan gai horiek lantzea eta gai-



nera, Berde-berdea proiektuarekin egiten den bezala, bide hori aprobetxatuz, ingurumenaren alde lan egiten duten elkar-teentzako laguntzak lortzea.

Berde-berdea proiektuan parte hartzen duten ikasleek ingurumenarekin zerikusia duten gaiak landuz eta galdera batzuei erantzunez puntuak lortzen dituzte. Ondoren, puntu horiek ingurumenaren alde lan egiten duten elkar-teentzat diru-laguntza bilakatzen dira, Kutxak lagunduta.

Ingurumenaren arazoak aipatzean, klima aldaketa etorri zaie burura, gai honek kezkatzen ditu gehien, eta arazoa konpontzetik urruti, okerrera doala uste dute. Arazoa konpontzen laguntzeko egiten duten ekarpena da ikastolara joateko garraio publikoa erabiltzea edota oinez joatea.

Berde-berdearen hurrengo lehiaketa laster jarriko da martxan, eta hirukote honek behintzat, parte hartzeko asmoa badu. Google Earth berrir ere erabiltzea gustatuko litzaieke, baina badirudi ez diotela beste edozein teknologiarik aterik ixten.



LIBURUA LAGUN

DBHko ikasleentzat gozamenerako IRAKURKETA eskura

Orain artean beti saiatu izan gara gure ikasleek irakurketarekin goza dezaten, baina hori indartzeko ikasurte honetan liburu-txoko berriak antolatu ditugu bereziki DBHko 2. zikloan, lehen zikloko bideari jarraituz. Gure pasiloetako ate-txokoak antolatu ditugu liburuak kokatzeko eta ikasleen begi-bistan jartzeko.

Egia da hainbesteko ekintza dituzten zenbait ikasleek ez dutela irakurketaren beharrik eguneko orduak betetzeko, baina badugu beste ikasle multzo bat —gero eta handiagoa— irakurketaren premia duena eguna ongi bukatzeko, irakurtzen ari den istorioaren berri izan nahi duena, hizkuntza batean zein bestean.

Gure helburua nagusiki ahalik eta ikasle gehienak irakurketan murgiltzea izango litzateke, beti ere zaletuen laguntzaz baliatuz eta gure liburu-txokoetako liburuak irakurritz, besteak beste.

Honen guztiaren berri ematearekin batera, ikasleek irakurritako liburu batzuen iritziak txertatu ditugu eta beste batean ere izango dituzue gehiago.

ISPILUEN GAINEAN LOTAN

Irakurtzea aspergarria dela pentsatzen duen pertsona horietako batek irakurtzeko da liburu hau. Askok disfrutatzen da, Diegok bere amonaren etxeko kutxatxo batean "hildako" aitonaren gutunak nola aurkitu dituen, nola erabakitzen duen gutun haien atzetik Kubara bidaiatuko duela bere aitonaren bila, aurkituko duen edo hilda ote dagoen jakitea, liluratuko duen emakumearen bat azalduko ote den... irakurtzea ikaragarria izan da. Lehenengo paragrafotik lotzen zaitu eta ezin izango diozu irakurtzeari utzi. Abenturaz, jakin-minenez, amodio puntu handi batez beterik dago eta irakurtzen aspertzen uzten ez zaituen liburu ederra da "Ispiluen gainean lotan".

DBH 4Bko Uxue Urkia



CORDELUNA

Aunque haya que leerla con paciencia, por su lentitud para adentrarse en la historia, merece la pena, porque resulta ser una obra maravillosa, la cual mezcla el moderno presente y el clásico pasado, el amor intenso y el odio visceral, la eterna calma y la absoluta desesperación,...

Trata de dos historias paralelas, que distan la una de la otra nada menos que 10 siglos. Los personajes de la historia de antaño se identifican por enésima vez con los de la historia del siglo XXI para enfrentarse a un encantamiento maldito. A pesar de que esta vez será en el lugar y sitio adecuados, ¿lograrán derrotar la magia negra que los rodea?

En conclusión, recomiendo leer esta extraordinaria obra a todos los lectores y no-lectores, aunque en mi opinión, no es la novela más idónea para adentrarse por primera vez en el mundo de la lectura.

DBH 3Bko Uxue del Rio Muguerza




ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION

Lourdes Oñederraren "Eta emakumeari sugeak esan zion" liburua ikaragarri gustatu zait, kontatzeko moduagatik gehienbat, protagonistaren barne pentsamendu errepikakorra adierazten baita bertan esaldi laburrak eta motelak erabiliaz, eta gainera, idazlea, urtaroen kronologiaz baliatzen da istorioa kontatzeko garaian.

Protagonista, Teresa, hogeita hamabost urteko emakumea da eta arazoak konpontzeko asmoz, bere senar Andresekin, Europa erdialdeko hiri batera bidaiatzen du urte beterako. Bertan Luis bizi da, aspaldian bere maitea izandakoa, eta gizon honekin pasatako une politak arazoak ekartzen dizkio Andres maitatzeko garaian.

Bi gizon horiek Teresari eragiten dizkieten sentimentu eta sentsazioak adierazten ditu liburu honek, bidaia fisikoa aitzakiaz hartuaz, emakumearen barne bidaia irudikatzen du.

DBH 4Ako Ariane Errandonea



CREPÚSCULO

Crepúsculo es una novela que relata la historia de amor entre un vampiro y una chica corriente. En esta novela la autora ha conseguido mezclar de un modo espectacular la novela romántica y la vampírica con un toque de humor interesante.

Siempre se ha pensado que esta saga está dirigida especialmente a las lectoras femeninas, ya que son las mujeres las que normalmente se inclinan por las novelas románticas. Pero en este caso ha quedado claro que está dirigida a lectores de ambos sexos puesto que en ella se mezclan varios géneros que gustan tanto a las mujeres como a los hombres.

El 5 de diciembre del año pasado se estrenó la película "Crepúsculo". Con ese estreno es algo corriente que muchas personas se decanten a ver la película antes que a leer el libro. No obstante, debería de recalcar que la autora ha conseguido crear un mundo paralelo sumergiéndose en él a todo tipo de lectores. Es sabido que el poder adentrarse a este mundo se consigue mejor mediante una lectura, así que he de comentarles a aquellos que estén interesados en esta saga, que es mejor leer el libro que ver su película.

Definitivamente, he de decir que esta saga es una lectura recomendable para todo tipo de personas bien si les gusta leer bien si no les gusta.

DHH 4Ako Estitxu Cruz

PIJAMA MARRADUNAZ JANTZITAKO MUTIKOA

Ikaragarri gustatu zait liburua, lantzen den gaia oso interesgarria iruditu baitzait. Istorioa Alemanian kokaturik dago, Hitlerren garaian eta juduek jasaten zituzten hainbat bizipen ezagutzera eramaten du egileak. Euskal Herritik kanpo jendeak igaro dituen ezbeharrez konturatzeko oso aproposa da. Baita ere beste kultura bateko jendea nolakoa den jakiteko.

Kontzentrazio-esparruaren buru izendatzen duten soldaduen bederatzi urteko semearen ikuspegitik kontatua dago istorioa, Brunoren ikuspegitik. Berlinen lasai eta pozik bizitzetik kontzentrazio-esparruko hesiaren ondoan bizitzera pasatuko da mutiko gaztea eta Shmuel izeneko mutiko judua ezagutuko du.

Liburuan bi ikuspegi zeharo ezberdinak azaltzen dira. Alde batetik, bere familiaren eta soldaduen juduen aurkako jarrera ikusten du Brunok, eta beste aldetik, bere lagun berriarena.

Kontaketako zenbait atal gogor samarrak iruditu zaizkit, bertan, Shmuelen bizipenak ere kontatzen baititu. Baina, hala eta guztiz ere, liburu zoragarri hau irakurtzera animatu nahi dut horrelako gaiak gustatzen zaizkion edozein pertsona.



DBH 4Bko Iraitz Sanchez



Hemen ditugu HHko irakasleak



Zutik ezkerretik hasita: ROXALI OTEGI, ITZIAR LEKUONA, MAXUX RETEGI, IOSUNE COUSILLAS.

Eserita ezkerretik hasita: OLATZ LEKUONA, IGONE URKIA, ANA GELBENTZU, JAIONE IRAGORRI, ITZIAR MUGURUZA, IZASKUN SISTIAGA.

Noiztik ari zarete Haurtzaro ikastolan lanean?

Badira bai urte batzuk, gehienak hogeitertetik gora. Badirudi atzo hasi ginela ikastolan lanean eta jadanik hogeitertetik eta gehiago pasatu dira. Urteak pasatzen ari diren adierazle argiena da garai batetan gure ikasleak izandakoekin topatzen ari garela berriro ere, baina orain ez ikasle moduan, gure ikasleak diren gurasoen moduan baizik. Diferentzia ederra ezta? Lehen ikasle eta orain guraso. Bitxia benetan. Urteak aurrera doaz, baina esan behar dugu ilusio handia egingen digula gure ikasle ohiekin berriro ere topatzeak.

Era berean pasiloetatik gure ikasle izandako irakasle berriei maiz topa gaitzake.

Beraz eskarmentu handiko pertsonak zarete, esperientzi handikoak.

Bai esperientzia handia dugu, urteetan zehar lortutako esperientzia: bizipen asko, egoerak, ezagupenak, harremanak...

Dena den, aipatu nahi dugu esperientzia bezain garrantzitsua den formakuntzari ere ekin diogula urte hauetan guztietan zehar. Etengabe jaso dugu formakuntza eta honetan jarraitzen dugu: psikomotritzitatea, IKT, adimen emozionala, hizkuntza alderdia, idazketa irakurketa...

Honi beti garrantzi handia eman izan diogu.



Hala ere, haize berriak heldu dira ezta?

Bai, gure artean Haurtzaroko ikasle ohi bat dago. Oso interesgarria eta aberatsa iruditzen zaigu jende gazte eta berria sartzea ikastolako proiektuan. Batzuen esperientzia eta eskarmentua, gazteek dakarten ilusio, freskotasuna eta indar berriekin uztartzea oso aberatsa iruditzen zaigu.

Ikastolak duen hezkuntza proiektuan eragina zuzena duzue. Zer diozue?

Bai dudarik gabe. Ikastolak duen proiektuan oinarritzen da gure lana eta honekin konprometituta gaude. HHn hasten da proiektua gauzatzen.

Proiektu guztiz euskalduna da, haurrak euskaraz hezten ditugu.

Euskal Herriko kulturaren bultzatzailea da gure proiektua. Oihartzungo eta Euskal Herriko hainbat ohitura eta festetan parte hartzen dugu. Proiektu eleanitza da. Haurrak lau urterekin hasten dira ingelese lantzen.

Gelan eguneroko lana "URTXINTXA" proiektuan oinarritzen dugu.

Gure proiektuan parte zuzena hartzen dugu bai irakasleok eta bai gurasoek.

Proiektu berritzailea da, eguneratzen doan proiektua, garai eta egoera berrietara egokituz doana.

Berritzailea aipatzen duzuela eta, garai batean nola egiten zenuten lana?

Desberdina zen. Ikastolako eremutik kanpora gehiagotan ateratzen ginen ingurunea behatu eta gozatzerara. Ez genuen lana txokoetan egiten. Lanak orokorrean egiten genituen eta esan behar dugu beti saiatzen ginela

lanerako metodo aurrerakoi eta erakargarria eskaintzen gure ikasleei.

Geletako estruktura ezberdina zen. Haur erdaldunak eta euskaldunak hizkuntzaren arabera taldeetan banatzen genituen eta lehenengo mailara pasatzeko garaian nahasten ziren. Geletan ez genuen ordenagailurik eta ez genuen psikomotrizitatea lantzen. Dena den, badira urte asko, hogeitabat urte gutxi gorabehera, oraingo metodologiarantz abiatzen hasi ginela besteen artean, txokoetan lanak eginez, edota ume erdaldun eta euskaldunak hasieratik nahastuz...

Etapan honetan gurasoekin gertuko harremana oso garrantzitsua da ezta?



Bai, kontuan hartu behar dugu haurren adina dela eta, gurasoen eskutik zuzenean pasatzen direla gure eskuetara. Honen ondorioz, esan dezakegu gurasoekin daukagun harremana egunerokoa dela, ohizko bakarkako bilerak eta taldeko bilerez gain. Egunero ateratzen gara haurrak jasotzera eta agurtzera, gurasoak nahi izanez gero gurekin egon daitezke. Haurra autonomoagoa bihurtu ahala, eguneroko harreman hau murriztuz doa, beti ere jakinda hor gaudela gurasoek gurekin egon nahi dutenerako.



Bukatzeko gauza bitxi gisa aipa daiteke une honetan HHn dauden irakasle guztiak Oihartzungoak direla.



Nori dagokio oinetako bakoitza?





Hemengo lau hontz berdin-berdinak dira.



Zer bide jarraitu
beharko du lemure
honek bananak jan
ahal izateko?





Zein da zerbitzari bakoitzaren izena?

Koldo, Mikel eta Erramunek betaurrekoak dituzte.



1

Erramunek, Benantxiok eta nik buruan arrastoa daukagu.



2

Zaudete pixka batean, oraintxe noa.



3

Erramunek, Koldok, Mikelek eta Anakletok bibotea dute.



4

lñakik, Benantxiok, Mikelek eta Anakletok "pajarita" daramate.



5

Oso gogorra da lan hau.



6

DENON ESKURA



**90 ikasle berri
Haurtzaro ikastolan**



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



Biok
ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea · Garmendi bidea, 3 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 492 501 · Fax 943 492 501

construcciones
ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



- IBILGAILU IA BERRIAK
- URTEBETEKO BERMEAREKIN
- 120 HILABETERAINOKO FINANTZAKETA

☎ 943 260 065

Poligono Talaia, 6 · 20180 OIARTZUN



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462

